

## DBH\_4\_Filosofia\_PROGRAMAZIO LABURPENA

Irakaslea

Ibai Gonzalez Balenciaga

Maila

DBH 4

Ikasturtea

### IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

**Filosofia** ikasgaia **hautazkoa** da DBH 4n. Espedientean beste ikasgaiak duten pisu bera dauka batz bestekoa kalkulatu behar denean (adibidez, espedientearen batz besteko nota igotzeko, diru-laguntzak jasotzeko...). **Filosofia** ikasgaia astean **bi orduz** landuko dugu.

Landu ditzakegun gaiak honako hauek dira: **Filosofiaren sorrera, Gaur egungo dilema etikoak aztertzea; Pertsonalitatearen gaineko analisia; eta Gizarte eta Politikarekin loturiko arazoak aztertzea.**

Kurtsoan zehar **Baterako Hezkuntza** proiektua landuko da jarduera zehatzen bidez.

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez ditu ezberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzeko bagara, abian jarriko da ikastetxeko ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

Nire posta elektronikoa hau da: [igonzalbal@educacion.navarra.es](mailto:igonzalbal@educacion.navarra.es)

### OINARRIZKO GAITASUNAK

### UNITATEAK

1) Hizkuntza komunikazioa.	1	2	3	4	5	6
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.	1	2	3	4	5	6
3) Gaitasun digitala.	1	2	3	4	5	6
4) Ikasten ikastea	1	2	3	4	5	6
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	1	2	3	4	5	6
6) Ekimena eta ekintzailtza.	1	2	3	4	5	6
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	1	2	3	4	5	6

### ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

### EDUKIAK

[DBH CURRICULUMA](#)

[Filosofia 4.DBH](#)

#### **1.ebaluazioa (22 saio)**

Bloke tematikoak (dekretutik hartuak):

- Filosofiaren sorrera
- Errealitatea eta metafisika

**Filosofiaren sorrera, Gaur egungo dilema etikoak aztertzea.**

## 2. ebaluazioa (22 saio)

Bloke tematikoak (dekretutik hartuak):

- Identitate pertsonala
- Sozializazioa

**Pertsonalitatearen gaineko analisia.**

## 3. ebaluazioa (22 saio)

Bloke tematikoak (dekretutik hartuak):

- Sozializazioa
- Eraldaketa

**Gizarte eta Politikarekin loturiko arazoak aztertzea.**

Skolaeko jarduerak

### EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

#### [DBH CURRICULUMA](#)

### UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
11	Filosofiaren sorrera	11	Identitate pertsonala	11	Sozializazioa
11	Errealitatea eta metafisika	11	Sozializazioa	11	Eraldaketa
	Filosofiaren sorrera, Gaur egungo dilema etikoak aztertzea		Pertsonalitatearen gaineko analisia		Gizarte eta Politikarekin loturiko arazoak aztertzea.

### METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

**Apunteak:** irakasleak emandako apunteak erabiliko dira.

**Metodologiari dagokionez,** klasean azalpen teorikoak, taldeka zein bakarkako ariketak, eztabaidak, filma-proiektzioak eta ahozko aurkezpenak tartekatuko dira.

**Baliabideak:** Zenbait pelikula/dokumental/bideo ikusiko ditugu. Prentsa idatzia, entziklopediak nahiz interneta erabiliko ditugu.

IK/KI egiturak erabiliko dira.

### EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

#### [DBH CURRICULUMA](#)

### KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

Ebaluazioko notaren osaketa:

\* **Ebaluazio bakoitzeko notaren osaketa:**

- Froga idatzia (azterketa): **4 puntu.**
- Ebaluazioan jasotako lanak (bakarkako lanak, talde-lanak, ahozko aurkezpenak...): **4 puntu.**
- Ebaluazioko lanak (taldekakoak zein bakarkakoak) derrigorrez aurkeztu behar dira.
- Klaseko parte-hartzea (lanarekiko jarrera arduratsua eta inplikazioa proposatzen diren ariketetan eta jardueretan): **puntu bat**
- Klaseko portaera (irakaslearekiko zein ikaskideekiko begirunea): **beste puntu bat.**

## OHAR GARRANTZITSUAK:

- Elkarrekiko errespetua eta klaseko parte hartze egokia ezinbestekoak izanen dira ikasgaia gainditzeko (gaitasun sozialari dagokiona). **Atal hau bete ezean, ebaluazioa edota ikasgai osoa suspenditu daiteke.**
- Epez kanpo aurkeztutako lanek asko jota 5 bat jasoko dute notan. Irakasleak zehaztuko du noiz arte aurkeztu daitezkeen berandu emandako lanak (**derrigorrez aurkeztu behar baitira**).
- Froga idatzian (azterketan) 5 batera iristea ezinbestekoa izanen da bakarkako zein talde-lanekin batera bataz besteko nota kalkulatu ahal izateko. Froga idatzia test modukoa izanen da kasu gehienetan.
- **Azken ebaluazioaren kalifikazioa, hiru ebaluazioetan lortutakoaren bataz bestekoa izanen da. Nota honek gora edo behera egin dezake 0,2 puntutan gehienez, ekaineko klase egunetan izandako jarrera eta lan mailaren arabera.**

## ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEKOAK

1. Eduki teorikoak, frogetan/lanetan/ariketetan, zuzenak eta gramatikalki ondo adierazita egotea.
2. Informazio iturri ezberdinak erabiltzen ikasten hastea modu zuzen eta autonomoan.
3. Landutako eduki teorikoak sintetizatzen jakiten hastea.
4. Landutako eduki teorikoak analizatzen jakiten hastea.
5. Landutako kontzeptu teorikoak partekatzen jakiten hastea.
6. Sortze-lana egiten ikasten hastea, norberaren ideiak eta ikasitakoa uztartuz hausnarketa pertsonalaren bitartez.
7. Gai baten inguruan argudiatutako iritzia ematen ikasten hastea eta, aldi berean, besteen iritzia begirunez entzuten eta ulertzen ikasten hastea.
8. Ebaluazio bakoitza gainditzeko eta ekainean ikasgaia gainditzeko, beharrezkoa izanen da irakasleak agintzen dituen lanak, gogoeta pertsonalak, galdetegiak etab. aurkeztuak izatea eta eginen diren frogetan (azterketan) 5 bat lortzea.

### Borobiltzea:

**Ebaluazioko** nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

**Ikasturte bukaerako** nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

## ERREKUPERAZIO SISTEMA

### \* EBALUAZIOETAKO ERREKUPERAZIOAK

Errekuperazioa derrigorrezkoa da ebaluazioa suspendituz gero. Errekuperazioa ebaluazioa pasa eta gero eginen da lehen bi ebaluazioetan. Aldiz, 3. ebaluazioa suspendituz gero, errekeruperazioa 3. ebaluaziko Nahikotasun probetan eginen da.

### \* 3. EBALUAZIOKO NAHIKOTASUN PROBA

3. ebaluazioa gaudituz ezean, ikasleak Nahikotasun Proban bere burua aurkeztu beharko du. Nahikotasun proban 3. ebaluazioko errekeruperazio arrunta suspendituz gero, ekaineko Amaierako Deialdian berreskuratzeko azken aukera izango du.

### \* AMAIERAKO DEIALDIA

Ekaineko Amaierako Deialdian, errekeruperazio arruntetan edota 3. ebaluazioko Nahikotasun proban suspenditutako ebaluazioak ebaluatuko dira. Kasu guztietan, ikasleak gaizki egin dituen edota bete ez dituen lanak/frogak/ariketak edota gaudituz gabeko azterketak egin beharko ditu,

gainditu gabe duen/dituen ebaluazio edota unitate didaktikoekin lotuta beti.

Berreskurapen azterketak edota berregin beharreko proiektu guztiak nahikotasun maila kontuan hartuz izanen dira (hots, gutxieneko edukiak oinarri), dena den, kalifikazioa 5 bat izan daiteke gehienez jota.

### **KANPOKO EBALUAZIOA**

Ikasgai honetan ez dago.